



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-07-03

VIII. URTEA 2.042. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. IMAZ

FELIX BELAUNZARAN BERROBIKO IRIARTE JATETXEKO SUKALDARIA

«Piparra, tomatea eta beste hainbat barazkirekin gazpatxo andaluziarra egingo dut»

TOLOSA 'Tolosako Azokak + KM 0' ekimenaren baitan Trianguloa plazan izango da gaur goizean jakiak prestatzen eta banatzen z




Giro ederrean bildu ziren herriko koadrilak. E. MAIZ

Koadrilen Egunaren ondotik festen azken txanpan murgildu dira

ASTEASU Bihar amaituko dituzte San Pedro jaiak; gaur eta bihar izango da zer egina, hala ere 5

Etzi hasiko dira N-1 errepide zaharra konpontzen

VILLABONA Elizako bidegurutzetik hasi eta Etxe Ondoko gasolindegirainoko bidean hasiko dira 5



**txindokiko
itzala**

ANIMA ZAITEZ!

**Larraitz
628 947 253**



**IBARRAKO
TXONTXO UDAL LUDOTEKAK**
BEGIRALE BAT behar du 10-11 ikasturterako



- Derrigorrezkoa da: begirale titulua eta EGA izatea.
- Lehenetsiko da ibartarra izatea.
- Curriculumak bidali: ibarra@ikastola.net "10-11 begiralea" zehaztuz.
- Curriculumak jasotzeko epea: **uztailaren 6a**

Tf.: 943 671 299 E-maila: ibarra@ikastola.net

E Elkarrizketa**FELIX BELAUNZARAN** Berrobiko Iriarte Jatetxeko sukaldaria**Sukaldaritza**

Tolosako Azokak + KM O ekimenak aurrera jarraitzen du. Gaur goizean Felix Belaunzaran egongo da Trianguloa plazan jakiak prestatzen.

ASIER IMAZ

Berrobiko Iriarte Jatetxeko sukaldaria da Felix Belaunzaran (Berrobi, 1972). Gaur, bera izango da Tolosako Azokak + KM O ekimeneko protagonista. Lehenik, Zerkausian barrena ibiliko da erosketak egiten. Ondoren, produktu horiekin jaki freskoak prestatuko ditu. Azkenik, jendearen artean dohainbanatuko ditu.

Felix Belaunzarani sukaldaria Trianguloan dagoen Udako Turismo Bulegoaren ondoan jarriko diote.

Zer prestatzeko asmoa duzu Tolosan?

Beroa iritsi denez, Ibarroko piparrak edo *Langostinoak* hasi berriki dira. Baita tomateak ere. Azokan bihar (gaur) erosiko ditut baina badaezpada, baserriarrei gordetzeko eskatu diet. Garaiko produktuak hasi berriak edo aurrenekoak direnez, hobe horrelako konpromisoa

«Piparra, tomateak eta beste hainbat barazkirekin gazpatxo andaluziarra egingo dut»**«Azokan bainak ere erosiko ditut, urdaiazpikoarekin prestatzeko»**

baterako aurretik eskatzea, ez baitira oraindik asko egongo. Tomatea eta piparrak gain, barazki gehiago erosiko ditut goizean goiz. Denak xehatu eta gazpatxo egingo dut, hotza. Gero Berrobiko bainak erosiko ditut. Azokan, urdaiazpiko ukitu batekin prestatzeko.

Garaiko produktuei garrantzia emango diozu, beraz.

Larunbatetan lantzen duguna hori da. Tolosako azokan dagoena, baserrietan orain dutena da. Horregatik deitzen zaio KM O. Goizean edo bezperan bildu eta azokara eramaten dute baserriarrek, garaian garaioa.

Zeintzuk dira produktu horien ezaugarriak?

A. IMAZ

«Larunbatetan Tolosan altxor bat daukagu, eta hori zaindu egin behar da»

Hasteko, garaioak freskotasuna izaten du eta ondorioz, zapore gehiago. Letxuga bat barazketik hartu, uretan pasa eta plateran jartzen baldin baduzu, karraskatsua egoten da. Plastikoen bilduta egoten denak baino barazki zapore gehiago dauka. Erabat desberdina da.

Azoka zalea al zara? Hau da, ba al daukazu larunbatetan Tolosara joateko ohiturarik?

Tarteka huts egiten dut baina beti gustatu izan zait. Goizean joan, itzuliren bat eman, zer dagoen ikusi... Onddoen denboraldian adibidez, bertan erosteko aukera edukit du. Barazkiekin zerbaitek atentzia deitzen badit, berdin egiten dut; ilarrak asko erosi ditut adibi-

dez. Ezin dudana egin zera da, Jatetxerako dena bertan erosi. Ezinezkoa da. Hala eta guztiz ere, azokan egoten diren batzuk astean zehar produktuak ekartzen dizkidate.

Azokara joateko ohitura hori, zer nolakoa iruditzen zaizu?

Zorte handia daukagu, hori oso argi gera dadila. Askotan erosotasuna bilatzen da baina pentsa, goizean edo bezperan lurretik bildutakoa hor edukitzea izugarria da. 50 edo 60 urteko emakumeak hor egoten dira euren esku horiekin saltzaille lanetan... horiei ordaindu egin behar zaie. Batzuk ikusten dituzu letxuga zenbatean duten galdezka zentimo batzuen gorabeheran, galdezka eta prezioa jaitsi

nahian. Horrela ibiltzea erabat zentzugabea dela iruditzen zait. Larunbatetan Tolosan altxor bat daukagu eta hori zaindu egin behar dugu. Etorbizunean gainera ez dakigu zer gertatuko den; ez dakigu belaunaldi berriek bide horretatik jarraituko duten edo ez.

Nolako harremana duzu saltzaillekin?

Baserriko produktuekin lan egiten duen saltzaillearen eta sukaldarien artean harreman ona edukitzea garrantzitsua da: «hurrengo astean zer ekarriko duzu?»; «ba, hurrengo astean...» ez dakit zer esan-

go dizute. Adibidez, aurtengo aurreneko Ibarroko piperrarena iragan asteko azokan esan zidaten. Elkar ezagutze horrek konfiantza sortzen du; erosketak egiterako orduan, zer erosi edo zer ez erosi esateko balio dezake. Harremana estua baldin bada, astean zehar ere hitz egiten jarraitzen duzu: «Aizu, baserrian hau eta hau dugu, jate-txean behar al duzue?»; «Ongi da, ekarri lasai».

«Baserriarren eta sukaldarien artean harreman ona egotea garrantzitsua da»**«Tolosako azokan egoten dena, baserriarrek orain lantzen ari direna da»****KM O bezalako ekimenak zer iruditzen zaizkizu?**

Ondo, oso ondo daude. Horregatik gaude hor, hemen daukaguna erabiltzen ikasi behar dugu. Honekin ez dut esan nahi kanpokoa ez dugunik erosi behar. Hori ez da horrela, gainera, beste lekuetakoa erosi erosten dugu. Baina bertakoa landu egin behar dugu eta produktua distantzia zero baldin bada, bere freskotasuna eta ezaugarriak mantentzea errazagoa dela argi eduki behar dugu. Gero gainera, edozein arazo baldin baduzu zuzenean baserriararengana joaten zara. Pentsa hori beste produktuekin nola den: ez dakit non erosi eta arazoren bat baldin baduzu, bezeroen harretarako telefono zenbakia emango dizute. Deitu eta ez dakit zenbat denbora egon beharko duzu zain.

Eguraldi ona egiten baldin badu, jenderik ez da faltako zure inguruan.

Egia esan horrelako zerbait egiten dudan lehen aldia da. Gutxi gorabehera 200 txupito baso inguru eramango ditut. Ikusi beharko da zer gertatzen den.

Sukaldari lanetan Iriarte Jatetxean ibiltzen zara. Zein da etxeko espezialitatea?

Txerrikumea. Begira, KM O aipatu dugu eta guk ere antzera egiten dugu. Aitak txerri granja bat dauka Berrobin, anaiak ere bertan egiten du lan. Jatetxean behar dugunean hara deitu eta zuzenean ekartzen digute. Gero hemen, bi modutan prestatzen dugu.

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Etxebizitza.** Tolosako Berazubi auzoan etxebizitza salgai. 4. solairua, igogailuarekin eta sotoarekin. Gela guztiak kanpoaldera. Interesatuak deitu: 679 44 05 27 zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Korreo kalean. Egoera onean eta bizitzera sartzeko moduan dagoen pisua. Dena kanpoaldera, PVC-ko leihoak eta gasa. 179.000 euro. Interesatuak deitu 658 75 21 50 zenbakira.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliagarri banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Sanferminak Tolosara ere iritsiko dira

Tolosa » Urtero bezala, aurten ere San Fermin eguna ospatuko da Alde Zaharrean, bizilagunek antolatuta.

OIHANA IGUARAN

Datorren asteazkenean izango da San Fermin eguna, eta Tolosan ere ospatzeko asmoz agertu dira.

Urteroko legez Alde Zaharreko Sanferminak izango dira, bertako bizilagunen eskutik.

Dagoeneko hasi dira prestakuntza lanekin, eta ludoteka zein haur gutzietei deialdia luzatu diete, festan parte hartzera animatu daitezten.

Egitaraua

Uztailaren 7an, San Fermin egunean bertan izango da festa hau, eta 12:00etako txupinazoak emango dio hasiera. Ondoren buruhandiek emango diote jarraipena jaia-



Plaza Berria bera ere, zezen-plaza bihurturik. I.T.

ri, kalejirarekin. San Fermin egunean faltatu ezin den entziero txikia ere egingo dute ondoren, Iruñeara joan beharrik gabe haurrek nahiko korri egin dezaten.

Eta jarraian txokolatada izango da, bertaratutako eta parte-har-

tzaile guztien eskura. Jaiarekin bukatzeko *Pobre de mí* tradizionala kantatuko dute. Honenbestez, zabalik da deialdia parte hartzera animatzen den edozein haur zein helduentzat. Askiz izango da txupinazora bertaratzea. Noski, txuri-

gorriz jantzirik etortzea eskatzen dute antolatzaileek, festari dago-kion bezala.

Beraz, txuriz jantzita eta gerriko eta zapi gorriekin agertzea litzateke egokiena, Alde Zaharreko bizilagunen iritziz.

Laburrak

Sanjoanetako Toka Txapelketako onenak

TOLOSA • Haritze Jubilatu eta Pentiodunen elkarteak argitu duenez hau da pasa diren San Joan jaietako Toka Txapelketako (ekainak 25) sailkapen orokorra. Lehena Anoetako Fidel Benito izan zen, bigarren Urnietako Antonio Igleasiasek egin zuen, hirugarren Tolosako Jose Manuel Ortiz izan zen, laugarren Ibarra Isaisa Gonzalez eta bosgarren Tolosako Juan Zubeldiak egin zuen. Era berean, Tolosako hoberenak Jose Manuel Ortiz, Juan Zubeldia eta Angel Izagirre izan ziren.

Zaldi Lasterketako zozketako sariduna

ABALTZISKETA • San Joan jaietan egiten duen Zaldi Lasterketa antolatuta ahal izateko egindako zozketako zerbaki sariduna 1.393 da. Irabazleak Ostatu tabernan 2 lagunentzako afaria irabazi du.

Ondoan ez izan arren ere, gogoan izango dituzte herriko gazteak

Bedaia » Urtero bezala, omenaldia egingo zaie gaur, falta diren gazteei Artubi elkartearen eskutik

OIHANA IGUARAN

Urtero bezala, aurten ere gogoan hartu nahi izan dituzte Bedaion falta diren gazteak.

Honenbestez, omenaldia antolatu dute, arratsalde osoan iraungo duen egitarauarekin; «hutsunearengainean irribarre bat jartzeko», argitu dute antolatzaileek.

Egitaraua

Hasteako, arratsaldeko 17:00etan elkartean elkartuko dira eta mendian herriak eskainitako monolitoetan lore eskaintza egingo da, falta direnak oroitzeko.

Bueltan, gaueko 20:30etan frontoian omenaldia jai giroan jarraituko da, sagardo dastatzea eginez.

Ondoren bertsolari eta trikitilariak afal ondo girotuko dute.

Oharra

Bakoitzak bere afaria eraman behar du eta elkarteak parrilak jarriko ditu nahi duenarentzat.

Herriko gazteak «alai omen-duz» Artubi elkarteak gonbita luzatu nahi diete herritar eta lagunei.

Beraz, omenaldian parte hartzeko, aski izango da 17:00etan elkartea aurrera azalduta edo gainerrako ekintzetara joanda.

UEUko ikastaroetarako diru laguntzak eskatzeko baldintzak

Anoeta » Herritarrek ikastaroa hasi baino lehen edo hasi eta ondorengo 15 egunetan egin ahal izango dute eskaera.

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetara joan nahi duten herritarrentzat diru laguntzak emango dituelajakinarazi du.

Eskera ikastaroa hasi baino lehen edota hasi eta ondorengo 15 egunetan egin behar da.

Udalak argitu duenez, udaletxean bertan eskuratu daitekeen edo webgunean (www.anoeta.net) dagoen eskaera-orrria behar bezala beteta aurkeztu behar da, batetik.

Bestetik, NANaren fotokopia eraman behar da eta baita eska-

tzailearen lan egoera frogatzeko agiriak ere - langabezian egon ez gero langabezia txartela, jubilatuak direnek hau frogatzen duen agiria edota ikasleek hau egiaztatzen duena-.

Banketxe edo aurrezki kutxaren agiria

Era berean, banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria aurkeztu behar da, eskatzailea kontu baten titularrak dela egiaztatzen duena, hain zuzen.

Matrikularen ordainagiria ere eraman behar da udaletxera, eta bukatzeko UEUk emandako ziurtagiria aurkeztu behar da, bertan adierazi behar delarik ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua eta egin duen ikastaroa zehaztu diren.

Informazio gehiago www.anoeta.net webgunean topatu ahal da.

AHTaren lanak uzteko eskatu dute

Tolosa » Epaitegira jo zuten atzo goizean epaileari lanak bertan behera uzteko agindua emateko eskatuz.

ERREDAKZIOA

Abiadura Handiko Trenaren kontrako mugimenduko lau kide Itsasondoko meategian sartu zirenekin herenegun goizean erresistentzia egiteko. Meategiak Ordizia-Itsasondo tartean eraikitzen ari diren tunelaren inguruan daude eta beraz, atzo bertan agertu zuten, lan hauen leherketen ondorioz, meategiak ondoratu daitezke.

Obren arduraduneri lanak bertan behera uzteko eskatu zieten, baina honen ezezkoa besterik ez zutelako jaso salatu dute AHTaren aurkako ekintzaileek. Horiek horrela, herenegun gauetan leherketa izan zen bertan, eta baita atzo goi-

zean ere, aurrekoa baino bortitzagoa izan zena. «Gaur goizeko atzoko-leherketa bortitzagoa izan da eta ez dugu ulertzen leherketa hain gertu egonda, nola jarrai dezaketen lau lagun biziak arriskuan jarritz», argitu zuten ekintzaileek.

Salaketa

Horiek horrela, atzo goizean salaketa jarri zuten Tolosako epaitegian epaileari lanak bertan behera uzteko eskatuz.

AHTaren kontrako taldeak azaldu duenez, «badirudi Herri-zaingo Sailak ez duela egoeraren larritasuna onartu nahi» lanekin aurrera jarraitzen dutelako eta ostegunean hasitako ekintzaileen bilaketa lanak bertan behera utzi dituztelako. Egoera honen aurrean larrialdi deia egin dute Euskal Herri osora, «orain inoiz baino gehiago obrak gelditzeko aldarrikapenari babesa erakusteko».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eusko Herriko produktak, etxetik gertu zure etxera

Egia esan, ez darama onena. Internet bidez erosteko, egiteko, baina BERRIA! erabiltzen duzun webgunean erosteko, erosi, erosi, eta gurekin erosi! Erabiltzen, eta bai berria.

27,00 €
Erri. 10000
Eusko Herri,
Basque
& Herriak

25,00 €
Erri. 10000
Herriak,
Herriak
& Herriak

Bere produktua erosi eta, hurrengo eguneko 10:00an Eusko Herriko Plaza.

www.euskoherriko.plaza.com

www.euskoherriko.plaza.com



Manuel Roman arduratu da manipulazio tailerra emateaz. I.T.



Atzo goizean gaztetzontzat txotxongilo tailerra ere eman zuten. I.T.



Parte-hartzaileak oso gustura aritu dira diziplina hau ikasten. I.T.

Txotxongiloei bizia ematen ikasten



Hirukideko ludotekakoak trebatzen

AISIA ■ Ikasurtea amaitu da, eta ludotekak zabaldu dituzte atek, opor egunetan ohikoa den bezala. Ziur inguruko ludoteka askok Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa aukeratzen dutela goiz pasaren bat egiteko uda honetan. Horrela egin zuten Hirukideko ludotekakoak. Txotxongilo tailerren parte hartu zuten, eta amaitu zutenean «oso pozik» irten ziren Topic-etik txotxongilo banarekin. I.T.

Kultura » Txotxongilolarientzat IX. Udako Ikastaroa hartu du Topic-ek aste honetan; Dejabu taldearen antzezlan izango da gaur, 22:30ean.

IÑIGO TERRADILLOS

Telebistan ikusten ditugunean bizidunak dirudite, gizakien moduan mugitzen direlako, eta hitz egin eta barrea eta negarra bezalako sentimenduak adierazi ditzaketelako. Panpin eta txotxongilo hauen atzean, ordea, artistak gordezten dira, pertsonaia hauen bizia emateaz gain, antzerkia egiteko gai diren aktoreak.

Txotxongilolariena aktore lanetik haratago doa, eta berezitasun edota adar bezala har dezakegu. Bada, arlo honetan trebatzen aritu dira aste guztian zehar Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan. Izan ere, Unima (Txotxongiloaren Nazioarteko Elkarte) Euskal Herriari eta Unima Espainiak antolatuta, lehen aldiz egin dute gurean Txotxongilarietzat Udako Ikastaroa. Idoia Otegi da Unima Espainiako zuzendaria, eta berak azaltzen duenez, «Topic ireki zenean ikastaroa Tolosara ekartzea erabaki zen». 2002. urtean hasi ziren

ekimen honekin, eta orain arte Madrilan egin izan dute. Aurreantzean, ordea, Topic izango da ikastaroa egiteko egoitza.

Txotxongilolarien formakuntza eta birziklapena xede duen ikastaroan 15 lagunek hartu dute parte. Horietatik hiru euskaldunak, eta gainerakoak Espainia eta Hegoamerikakoak. Guztiak ezauridiren formakuntza dutela, alegia, ikastaroan parte hartzeko derrigorrezko baldintza. Otegi dioenez, «funtsezkoa da formakuntza hau izan ere, ez Euskal Herrian ez eta Espainian ere, ez dago diziplina honetako hezkuntza formalik, eta honetan ari direnak autodidaktak izan ohi dira».

Ahotsa eta manipulazioa

Pasa den larunbatean hasi zen ikastaroa, eta gaur amaituko da. Egun hauetan guztietan goiz nahiz arratsalde aritu dira gaiak lantzen. Batetik telebistarako panpinen

manipulazioa ikasi dute *Los Lunis* saioko sortzaile den Manuel Romanekin. Bestetik, Pablo Blandor aktorea ahots tailerretan arduratu da. Ahots teknikak landu dituzte, proiektzioa, egitura, karakterizazioa, adierazpena, kantua edota zainketa, eta txotxongiloak kameraren aurrean mugitzen, eta gorputzeko atal bakoitzari bizia ematen ikasi dute, besteak beste.

Ikastaroa bi hitaldirekin osatu dute; bata Topic proiektuari buruz Idoia Otegi eta Migel Arretxe zuzendarien eskutik, eta bestea Margareta Niculescuren eskutik, *Bizitza osoa txotxongiloei eskainia* izenekoa. Azken hau atzo izan zen, hain justu Niculescuren txotxongiloekin egindako lanarengatik Gorgorito saria eman eta gero.

Helduek nahiz gazteek

Helduek egin duten bezala, atzo gazteek ere izan zuten aukera txotxongilo bat eraiki eta eurekin antzerkitxo egiteko, goizean tailerra izan baitzen eurentzat.

Bestalde, txotxongiloei eskainitako asteari amaiera emateko, Dejabu euskal taldearen *Txoria ez den gizona* lana izango da gaur, Topic-en, 22:30ean.

XI. GARAGARDO FESTA
UZTAILA 1, 2, 3, 4 Oskorako "Ben Aia" Filotelekin 18:00/19:00
IGANDEAN, UZTAILAK 4 BAZKARIAK EMANGO DITUGU

Koadrilek indarberrituta ospatu dute beraien eguna

Asteasu » Koadrilen eguna eta herri afariaren ostean, gaur eta bihar ere festa izango da. Guztientzako moduko ekitaldiak daude.

ENERITZ MAIZ

Hiru eguneko parranden ostean, osteguna atsedeen eguna izan zuten. Asteasu argehienean, beste hiru jai egun aurretik zituztela jakinda, indarrak berritzeko baliatuko zuten eguna.

Atzokoan, koadrila guztiak beraien eguna ospatzera ateratu ziren kalera. 14:30ak aldera, guztiak plazan elkartu ziren bazkaltzeko. Gazte eta ez hain gazteek elkarrekin bazkaltu zuten. Arratsaldean, gaztetxoek ere ongi pasatzeko au-

keran izan zuten Elizmendin. Bertan, gaztetxoek goitiberak izan ziren. Hilerriko bidetik behera jaisten gozatu ederra hartu zuten. Bertan herriko txikiak beraien gurasoekin inguratu ziren. Ondoren koadrilekin batera, *Orkesta Itinerante*, txaranga elektronikoaren musika izan zen nagusi kaleetan barrena.

Gauean, berriz ere plazan elkartu eta tripa betetzeko, herri afaria izan zuten herritar guztiak. Ondoren, dantzarako aukera izango da Trikujai diskofestarekin.

Hala ere, festa giro izango da gaur eta bihar ere. Adin guztiak izango dute aukera: pilota, futbola, kontzertuak, zezen eta pony-ak, sagardoa eta pintxoak, herri kirolak... norberaren esku dago gustuko duena aukeratzeko.



Gaztetxoek goitiberetan ibili ziren Elizmendin. Hilerriko bidetik behera jaisten ziren. E. MAIZ

» SAN PEDRO JAIK 2010

Gaur, uztailak 3

■ **10:30.** Asteasuko auzoen arteko futbol torneo. Taldeak: Kalea, Elizmendi, Goibarra eta Moraleja berria. Mus txapelketa herrikoia (16 ute arte eta 16 urtetik aurrera). Txintxon txapelketa.

■ **18:00.** Zezen txiki eta pony-ak ibiliko dira.

■ **18:00.** Arkupeko pilota txapelketaren finala.

■ **Ondoren.** Asteasuko pala txapelketaren finala.

■ **23:30.** Musika kontzertua plazan: Inde Kitxen eta Esne Beltza taldeekin.

Bihar, uztailak 4

■ **11:00.** Esku pilota eskolako txapelketaren finala. Alebinak: Ioritz Maioz eta Julen Aizpuru. Kadeteak: Mujika eta Elustondo, Labaka

eta Iruretagoienaren aurka. Jubeniletan, Urbieta eta Zinkunegi, Urbieta II eta Otaegiren kontra.

■ **Ondoren.** Sagardo dastaketa plazan: Aburuza, Etxeberria, Sarasola eta Zabala.

■ **18:00.** Herri kirolak: Asteasuko taldeen arteko lehia.

■ **Ondoren.** Laket taldea.

■ **23:00.** Laket talderekin erromeria plazan.

Astelehenetik aurrera bidea konpontzen hasiko dira

Villabona » N-1 errepide zaharra bi fasetan konponduko dute. Lehen, elizatik gasolindegira bitartekoa izango da.

E. MAIZ

Astelehenean, hilak 5, Villabona herria gurutzatzen duen N-1 errepide zaharrean obratan hasiko dira. Herri osoa gurutzatzen duen errepidea egoera txarrean aurkitzen da eta datozen egunetan, eguraldiak laguntzen badu, guztia berrituko dute.

Ur Kontsorzioak egin beharrekolanak dira eta azken unean aldatu egin behar izan dituzte. Orain, hasiera batean bigarren zatian egitekoa zena, astelehenetik aurrera egingo dute.

Elizatik, Tolosaldera

Elizako bidegurutzetik hasi eta Etxe Ondoko gasolindegirainoko bidean burutuko dituzte lehen asfaltatze lanak. Lan hauek direla eta trafikoa zentzu batean bakarrik ibiliko da, hau da, Tolosalderako norabidean.

Lehenik eta behin asfalto zati bat kendu egingo dute eta ondoren

berria botako dute. Jarraian, margotze lanak egingo dituzte. Obra hauek irauten duten bitartean, aipatu den kale zatian ezingo da aparatu.

Bigarren zatian, Izkina bidegurutzetik, elizaraino

Aurrerago jakinaraziko dute bigarren zatian noiz egingo den. Konpontketa lanak hastean, zati honetan ere ezingo da aparatu, era berean ezingo da zama lanekin egin, eta trafikoa Izkina bidegurutzetik Elizako bidegurutzeraino, Tolosalderako norabidean bakarrik erabili ahaliko da.



Anoetako hautetsiak eta hautetsi ohiak agerraldian. HITZA

Udalbiltzako auzipetuei babes adierazi diete

Anoeta » Ondorengo egunetan ere ekitaldi ezberdinak egingo dituzte. Herritarrei parte hartzeko deia luzatzen diete.

E. MAIZ

Anoetan, ekainaren 30ean, Udalbiltzaren aurka hastear den epaiketa salatzeko hainbat hautetsi eta hautetsi ohien agerraldia egin zen.

Bertan, ondorengo adierazpena onartu zen: «Udalbiltza Euskal Herriko Nazio instituzioak, zilegitasun osoa duela bere jarduerarekin aurrera jarraitzeko eta bere

kontrako erasoak bertan behera uztea eskatzen dugu. Inputaturik dauden 22 kideen aurkako epaiketa bertan behera uztea eskatzen dugu. Inputatuei gure elkartzasuna eta babes adierazten diegu».

Epaiketa salatzeko, hilaren 15erako, osoko bilkura deitu dute. Eta ondoren kontzentrazioa egingo da. Hilaren 17an, Bilbon deitu duten manifestazio nazionalarekin ere bat egiten dute.

Beraz, herritarrei deia luzatzen diete, «osoko bilkuran eta ondorengo kontzentrazioan, eta Bilboko manifestazioan eta aurrerantzean antolatuta daitezkeen mobilizazioetan parte hartu dezaten».



Hasiera batean Izkina bidegurutzetik hasi behar zuten. Azken orduko aldatuketatik 2. fasean egingo dute lehenik. HITZA

G Gutunak

Festa batzordeko taldeak Ibarako herriari

Estimu handian omen, baina estimu handirik jasotzen ez dugunok aurten Festa Batzordean ez parte hartzea erabaki dugu. Asko kostatuko erabakia izan da, festetan talde askok aukera izaten dugulako, besteak beste, urtean zehar egindakoa erakusteko. Baina nahikoa da! esateko garaia dela iritzi diogu eta halaxe egin dugu.

Gogoratze aldera, esan behar da Ibarako Festa Batzordea orain

urte batzuk jaio zela, garai hartan herrian zeuden talde ugari eta era askotakoak erakunde batean batzeko beharra ikusi zelako; eta lortu izana, bat egin izana, lanaren eta ahalagin handi baten emaitza izan zen.

Urteak daramatzagu herri honetan lanean, eta ez festetan bakarrik, eta ez dugu uste, alkateak besterik badio ere, oso aintzat hartuak (izan) garenik. Irudipena guztiz bestelakoa da: ez da gurekin ezertarako kontatzen, erabakiak ezarri egiten dira, ez adostu, nahiz eta

gero zuzen-zuzenean eragiten dituguten. Beti eskean, beti enbarazuan gaudelako mezua besterik ez dugu jasotzen.

Talde guztiok lan kulturala, soziaziala, aisialdiaren edo kirolaren ingurukoak egiten ari gara, herri honi bizia ematen, batzuentzako zein besteentzako jarduerak antolatzen. Jendea eskuzabal ari da lanean, modu boluntarioan, baina gauza batzuetarako sos batzuk ere behar dira. Non dira, adibidez, aurtengo diru laguntzak? Azkenean, euro batzuk lortuko badira, nor

bere aldetik eskean ibili behar ino-lako irizpide finkorik gabe ari den Udalaren atzetik.

Horren inguruko kezka eta haserrearen plazaratu genuen eta Udalaririk jakinarazi ere bai, idatziz, baina berean eta lehenean jarraitzen du. Ez du inoiz sinetsi borondatean oinarritutako lanean eta ez du inoiz hori kudeatu nahi izan. Orain lerro batzuk aipatu bezala, beti eskean gabilta, beti enbarazuan gaude. Eta Ibarako Udalak zer asmo duen prentsa bidez jakin dugu; itxura guztien arabera, protokoloa

aldatu egin du eta orain —beste batzuetan hain kritikatua izaten dena— prentsaren bidez egiten dugu jakinarazpenak.

Hasieran latz kostatuko erabakia izan dela esan badugu ere, argi eta garbi utzi nahi dugu, aldi berean, hau etenalditxo bat besterik ez dela eta ez dugula galdu egoera normal batean lan egiteko itxaropena. Eta halaxe jakinarazi nahi diogu Ibarako herriari, egoera ulertu eta gure erabakiarekin bat egingo duelakoan.

Festa Batzordea. Ibarra

Aranalderen protestekin bat egiteko mobilizazioak deitu dituzte

Ibarra » Atzo hasi zuen gose greba ibartarrak; hori dela eta hainbat ekimen antolatatu ditu Amnistiaren Aldeko Mugimenduak.

ERREDAKZIOA

«Bakartze politika» salatzen ari gara. Maite Aranalde ibartarra, eta beste bost euskal preso, gose greba mugagabe sartu dira. Ibartarra atzo gehitu zen protestara. Mutu-

rreko ekimen honen harira, Ibarako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak mobilizazioak deitu ditu datozen egunetarako.

Lehenbiziko egunetan propaganda jartzen eta herria informatzen ibiliko dira. Gainera, ibartarrei dei berezia egiten diete ur-botila hutsak pilatzen joateko. Bestalde, datorren asteartean, hilak 6, 19:30ean batzar informatiboa egingo dute eta ondoren, elkarretaraztea. Bertan, datozen egun eta asteetako mobilizazio dinami-

ka zehaztuko dute. Honez gain, aldi berean bat inprimitu eta etxez-etez zabaltzen ibiliko dira.

Hilaren 17an berriz, egoerak bere horretan jarraituko balu eta gose greban jarraituko balu, preso dagoen Poitiers Vivonneko espetxera martxa burutuko lukete.

Honenbestez, AAM-k, ibartarrak mobilizazio posiblei adi egotera eta Aranalderi beraien elkartasuna adieraztera deitzen dituzte, «propaganda egingez, ipiniz eta mobilizazioetan parte hartuz».

Safranek irabazi du estreinakoz jokatu den Belako Espainiako Bira

Ibarra » Aisa irabazi du ontzi frantziarrak, txapelketa; Xabi Fernandez ibartarra eta bere kideak bosgarren sailkatu dira.

ERREDAKZIOA

Safran ontzi frantsesak aise irabazi du Espainiako Bira. Seigarren eta azken etapen bigarren izan zen Safran, PRB ontzi frantsesaren atzetik, eta bi horiek sailkatu ziren lehen bi postuetan. Iker Martinez eta Xabi Fernandezek Movistar ontziak bosgarren postuan amaitu zuten Espainiako Bira.

Ekainaren 12an Hondarribiatik abiatu ziren partaideak, 1.735 itsas milia zeharkatzeko. Zortzi ontzi aritu dira lehian, eta Santander, Gijon, Sanxenxo, Calpe eta Palmatik igaro dira. Hasieratik, Vincent Riou eta Marc Guillemot kapitain zituzten PRB eta Safran ontziak ziren faboritoak. Honenbestez, aurreikuspenak bete dira, bigarren hauek izan baitziren Bartzelonara iristen, lehenak.

600 kilokoan bigarren saioa jokatu da gaur

Areso » Lur gaineko Sokatira Txapelketako zortzigarren jardunaldia izango da Amoroton ospatuko dena.

ERREDAKZIOA

Gaur lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako zortzigarren saioa jokatu da Amoroton (Bizkaia). Hau, 600 kiloko lehiako bigarren jardunaldia izango da. Bertan izango dira Aresokoak, Euskal Herriko beste sei talderekin batera. 17:30ean ekingo diete lehiari.

Goiherri A taldeak irabazi zuen lehen saioa, txanda eta tiraldi guztiak irabazita. Hala ere, Laukizko (Bizkaia) Gaztedik zelairatutako talde mistoak lan apagarria egin zuen. Nabarmenezkoa da gainera, taldea mistoa izaki, emakume eta gizonez osatua dagoela. Hori dela eta, ziurrenik, bigarren aukera hau baliatu nahiko dute Erandiokoei txapelaren bidea zailtze-ko.

Azken saioa hilaren 10ean jokatu da.



Aresoko taldea. HITZA

» LEHEN JARDUNALDIKO EMAITZAK

- 1. Goiherri A.** Erandio, Bizkaia. 18 puntu.
- 2. Gaztedi mistoa.** Laukin, Bizkaia. 15 puntu.
- 3. Areso.** Areso, Bizkaia. 3 puntu.
- 4. Mutriku.** Mutriku, Gipuzkoa. 9 puntu.
- 5. Goiherri B.** Erandio, Bizkaia. 6 puntu.
- 6. Getxo.** Getxo, Bizkaia. 3 puntu.
- 7. Gaztedi.** Laukin, Bizkaia. 0 puntu.

Laburrak

Trafiko mozketak eta aldaketak gaur nahiz bihar

IBARRA » VIII. Langostino Moto Festa dela eta, gaur eta bihar trafiko mozketak eta erregulazioak egingo dituzte. Hasteke, San Bartolome kalean, Kioskotik hilerria igotzeko eskaileretarako gunean, egun osoan zehar ezingo da autoa utzi eta Euskal Herria kalean 1etik eta 17ra arteko gunean berriz, 14:00etatik 21:00etara. Bestalde, Euskal Herria kalean 1 eta 17 zenbakien arteko gunean, 18:00etatik 21:00etara errepidea moztuko dute.

KZ gunea ostegunetan egongo da zabalik

BERASTEGI » Hil honetan Berastegi-ko KZ gunea ostegunetan bakarrik egongo da zabalik. Zerbitzuak ondorengo ordutegia izango du: 15:00etatik 19:00etara.

Herriko koadrilek bilera egingo dute etzi, 19:00etan

IBARRA » Herriko koadrilek bilera egingo dute etzi, Xepla elkartearen. Gaizki ulertu baten ondorioz, bi bilera deialdi egin dituzte koadrilek: astelehenerako eta astearterako. Azkenean ordea, batzarra astelehenean izango da. Beraz, Xepla elkartearen bilduko dira, 19:00etan.

Salontzotako herri afarirako txartelak salgai

BERASTEGI » Aurreko urteetan bezala, Salontzo jaiei hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorra burduntzian). Hara joan nahi dutenentzat, txartelak dagoeneko salgai daude, ondorengo lekuetan: Zelai taberna, Dendaberri, Urepele biltokia eta Basurde elkarteak. Helduek 16 euro ordaindu beharko dituzte, eta gaztetxoek (12 urtetik behera) zortzi.

Zalakain omendu dute Korsikan

Villabona » Euskal iheslariaren erraustak datozen hilabeteetan itzuliko dira Euskal Herria.

ERREDAKZIOA

Mikel Zalakain euskal iheslaria hil zenetik omenaldi ugari egin dizkiote, horietan azkena herenegun Korsikan bertan, bera bizi zen herrian, egindakoa.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak argitu duenez, «herri osoak antolatuta herri omenaldia egin zitzaion, baita hiletare. Mikelek herriari eskaini zion laguntza guztia eskertu zuten, baita Euskal Herriarekiko elkartasuna erakutsi ere».

Euskal iheslariaren erraustei

dagokionez, hauek momentuz han geldituko dira, eta datozen hilabeteetan itzuliko dira Euskal Herriara.

Azken egunetako kronika

Mikel Zalakain ekainaren 24an hil zen, 04:00etan Korsikako ospitale batean. Hil ondoren, ehorztetze batetara eraman zuten gorpua, bertan izan zutelarik erraustu arte.

Ekainaren 25ean, Zalakainek «senide, lagun eta herrikiideek agur xume bat eskaini zioten bertan, hainba korsikarrekin batera Eusko Gudariak abestu ziotelarik ikurrinak eta Korsikako bandera lagun zutelak», argitu du AAMk. Egun horretan eraman zuten gorpua Marseillara errausteke.

Ekainaren 26ean Korsikara itzuli ziren euskal iheslariaren erraustekin.



Mendiko bizikletaz egiteko egokiagoa den ibilbidea proposatuko dizuegu aste honetan; garai bateko Plazaola trenak egiten zuena, hain zuzen.

Leitzarango paradisu txikira

JOXEMI SAIZAR

Bidegorria izan beharrean, bide berdea da gaurko txangorako aukeratu duguna, Leitzarango bailara 1914tik 1953ko uholdeak bitarte pasatzen zuen Plazaola trenarena.

Zein da desberdintasuna? Errepidea ez dela hain erregularra: asfaltatu gabe zati gehienetan, tarteka zuloak, harri koskorrak... Tulseletan porlanezko zorua dagoela zehaztu behar da. Horregatik ibilaldi hau egokiagoa da mendiko bizikletaz egiteko.

Bestalde, Leitzarango webgunean dio txirringulietan oinezkoak errespetatu behar dituztela. Baina arau horrek ez al du balio baita ere bidegorrietarako? Galderak alde batera utzita, bide berde oso berdea dela ziurta dezakegu. Eta oso berdea da ur asko dagoelako Leitzarango: ibaia, erreka eta erreka tokiak, ur jauziak, putzuak, urtegiak, ubideak, akue-

duktuak... Benetak paradisu: natura, isiltasuna, bakea, lasaitasuna... Eta udan, bainua hartzeko aukerak nonahi.

Andoainera, lehenik

Leitzarango sartzeko, ordea, Andoainera joan behar dugu lehen-dabizi.

Tolosatik Andoainera joango gara eta bertan akueduktuaren azpiko errepidea hartuko dugu

Tolosatik zelaia da bidea, altuera aldaketa handirik gabe, errepide onarekin eta trafiko gutxiarekin, Villabonara trenbide eta Oria ibaiaren arteko errepidea eta gero Aduna behealdetik barrena hartzen badugu.

Andoaineko akueduktuaren azpitik doan errepidea hartuta alda-

pa handia daukagu eta aurrerago beste bat handiagoa oraindik Otita parkera iritsi bitarte. Asfaltatua egotea da honen abantaila. Bide berdea tren geltokiaren inguruan hartzea da beste aukera. Hortik Otita parkera iristeko tunel luzea pasa behar da. Ibilbide osoan tu-

Ibilbidean zehar 31 tunel topatuko ditugu, beraz komeni da linternaren bat eramatea

nel ugari aurkituko ditugu, 31 hain zuzen, beraz komeni da linternaren bat edo eramatea.

Tunelez gain, zubi, burniola, labe, errota, baserri, ur zentral, arrain-haztegi, tren geltoki eta horrelako asko topatuko ditugu bidean zehar. Oloki eta Ameraun izeneko puntuetan pilotzen dira horrelako batzuk. Oloki arte bidea errekararen eskuinaldetik doa eta handik Plazaolaraino hamabi aldiz gurutzatuko du ibaia. 20 km dira Andoaindik puntu honetara ino.

Urtoko parkea

Berehala, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko muga topatuko dugu, Urtoko parkea.

Beste sei kilometro jarraituta bide berdetik Leitzara iritsiko




Leitzarango 31 tunel aurkituko ditugu. JOXEMI SAIZAR



gara, kirolari, idazle eta politikari ospetsuen jaioterria. Hasieran asfaltatua dago eta gero ez. Tunelaren bat argizatuta dago.

Leitzara plaza eta udaletxea ikusgarriak dira eta pixka bat aparte San Miguel eliza eta Iñaki

Perurenaren *Peru harri* eskultura multzoa. Itzulerako, Berastegi, El duain eta Berrobi zeharkatzen dituen errepidea aukeratu dugu, pedalei asko eragin gabe jaitsi daitekeena, Artaletu eta San Anton mendateak kenduta.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



23°
17°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
OSKARRI
24°
15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

VIII. Garagardo Azokak hartu ditu jada frontoiko bazter guztiak

Irura » Gaur eta bihar 18:00etan irekiko dute azoka; ateratzen duten dirua Ikastolari laguntzeko bideratuko dute.

ERREDAKZIOA

Atzo arratsaldean hasi zen Irurako VIII. Garagardo Azoka. Gaur eta bihar ere izango da 17 garagardo motez eta ukondo zein bestelako jakiez gozatzeko aukera.

«Ikastola laguntzeko eta herrian giroa jartzeko»

Egun hauean biltzen duten dirua Irurako Ikastolarentzat izango da, izan ere, «Ikastola diru faltan aurkitzen da», eta ondorioz, bi dira azokaren helburu nagusiak Joxe Mendizabal Ikastolako lehendakariaren hitzetan: «herrian giroa jartzea eta diru pixka bat atezaz Ikastolari laguntzea».



Jende ugari bildu zen atzo frontoira. E.MAZ

Gaur eta bihar 18:00etan irekiko dituzte VIII. Garagardo Azokaren ateak. 17 garagardo mota daude, 12 hori, 3 tostatu eta 2 beltz. Garagardo guztiak 3 euro balio dute eta pitxarrak, aldiz, euro bat.

Honekin batera ere izango da jakitekoa. Ukondoak 9 euro balio du,

Mari Paz «Ikastolako amonak» egiten duen bakailaoa tomatearekin 5,5 euro, saltxitzak (Frankfurt eta Bratwurst) 2,5 euro, kroketak 2,5 euro, Irurako txistorra 2 euro, Irurako pastelxoak 3 euro, euskal pastela 3 euro eta gazta zein irasagarria ere 3 euro.

Publierreportaia

Negoio ideia berriei bultzada emateko kanpaina

Tolosa » Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu Zerbitzuak herriarrek animatu nahi ditu negozio ideia berriak pentsatzera.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu Zerbitzuak, enplegua sortzeko helburua du. Honela, enpresa proiektu bat aurkeztzen duenari, asmo hori aurrera eramateko behar duen laguntza gaztatu ematen diote.

Tutoretza pertsonalizatuaren bidez ematen da laguntza hori, ideien bideragarritasuna zehaztu ondoren, Negoio Plana eginez eta enpresa abiatzeko behar den finantzazioaren bila joaz. Honekin, ekintzaileei informazioa eta aholkularitza eskaintzen zaie, negozio txikiak abian jar ditzaten. Behin enpresa martxan jarrikeri ere, jarraipena eskaintzen zaio, sortu litezken arazoak konpontzeko eta zalantzak argitzeko.

Beraz, esan liteke zeharkako helburua mikroenpresak eratzea eta autoenpleguari prestakuntza eta laguntza eskaintzea dela, etorkizuneko enpresariari gaitasun batzuk emanez, oinarritzeko kudeaketa erremintak erabili ahal izateko; autoenplegua lan ekimenez har dadin.

«Hau da zure aukera»

Lelo honekin aurkeztu du Tolosaldea Garatzeneko ekimen berria, eskualdean ekintzailetasuna sustatzeko eta herriarrek negozio ideia berrietan pentsatzera animatzeko. Ekimen honekin, Tolosaldeko

herrietan errolatutako langabetuek izan ditzaketen negozio ideia ezberdinak praktikan jartzeko erraztasunak eskaini nahi dira, Autoenplegu Zerbitzuak teknika-ri den Jon Zubeldiak azaldu bezala, «ideia izatea bera ere saritu nahi dugun».

Horrela, negozio ideien idatzizko bideragarritasun plana Tolosaldea Garatzeneko ezarritako gidariaren arabera, eta, ondoren ahoz berriaz sortutako epaimahaiaren aurrean bera bideragarria dela defenditzeko 100 euroko diru-laguntza emango da. Gainera, bideragarria den negozio ideia hori negozio berri bat sortuz Tolosaldean martxan jartzeko 500 euroko diru-laguntza emango da. Horrez gain, enpresa abian jartzeko doako aholkularitza eta tutoretza ere eskainiko da.

Negoio ideien bideragarritasun plana Tolosaldea Garatzeneko aurkeztu behar da eta horretarako epea ekainaren 1etik irailaren 30a artekoa izango da. Parte hartzeko, ezinbestekoa izango da Lanbiden edotita Inem-en izena emanda egotea. Pertsona bakoitzeko ideia bakarra onartuko da, eta bideragarria den negozio ideiatik sortutako negozioa martxan jarri beharko da 2010eko abenduaren 31 baino lehenago. Ekimen honen inguruan argibide gehiago izateko, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu sailera zuzendu 943-654501 telefono zenbakiaren bidez, ekin@tolosaldea.net helbide elektronikora email bat bidaliz edo www.tolosaldeagaritzen.net webgunean esku-ragari dagoen informazio osoa hartuz.

Agenda

Aisialdia

■ **Tolosa.** Bedaion falta dituzten gazteen oroiemen eguna: menditerra eta ondoren afaria bertsoari eta trikitalariekin.

■ **Ibarra.** Lagostino Moto Festa: eguerdian ongietorria parte-hartzaileei, 17:30ean moto jolasak; 19:30ean Stuntman taldearen akrobaziak; Portugalgo André Colombo *Animalen* erakustaldia moto gainean; ondoren afaria eta 23:00etan rock jaialdia Desordutan eta Sleep Walkers taldeen kontzertuekin; 02:00etan urteroko striptease mistoa izango da eta 03:00etan DJ bat izango da.

■ **Tolosa.** Gau Giroko Zikloa: David Batllo (malabareak) 11:00etan Arostejieta kalean eta 12:00etan Korreo kalean; Fermin Sanles (malabareak) 11:00etan Korreo kalean eta 12:00etan Tontokalen; Nanny Gogorno (kale zirkoa), Plaza Berrian, 13:00etan, eta Euskal Herria plazan, 20:30ean.

Jaiak

■ **Asteasu.** San Pedro jaiak: futbol torneo; mus eta txintxon herrikoa; sokamuturra txikia, pala txapelketa eta kontzertua Indekitzean

eta Esne beltza taldeekin.

■ **Tolosa.** Amaro zoko jaiak: 10:00etan txirrindulari proba hasiko da; diana, jolasak, gaztelu puzgarriak, fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa, bakailao lehiaketa ajoarriero erara; auzoko nesken balleta, magia, euskara oke eta musika.

■ **Abaltzisketa.** San Pedro eguneko ospakizuna bihar igandea Larraitzen: 12:30ean meza nagusia; ondoren hamaiketako eta trikitalariak eta arratsaldean berriro trikitala iluntzera arte.

Musika

■ **Tolosa.** Tolosandblues 2010: Mac Jearas Band 19:30ean Amarotz auzoan, Sherman Robertson plaza Berrian 22:30ean eta Barcelona Blues Connection Fronton kafetegian 24:00etan.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Amarotzeko 12. Antzerki Astea: Free Dance Hop-en Hip Hop 18:00etan eta Jon Magik, 18:30ean.

Deialdia

■ **Tolosa.** Emendek elkartearen urteko batzar nagusia 11:00etan el-

kartearen egoitzan: kontuen balantzea, zuzendaritza berriaren izendatzea eta galde-eskeak.

■ **Alegia.** Hilaren 15ean, haurren bazkaria egingo da plazan. Txartelak (5 euro) Kultur Etxean daude salgai hilaren 12ra bitartean. Era berean, hilaren 17an, herri afaria plazan. Txartelak (22 euro), hilaren 7ra bitartean, Jubilatuen, Etxeberria, Hilario-Berri, Kafea, Eizemendi eta Kurpil tabernetan.

Ikastaroa

■ **Villabona.** Ahoz kotasuna kulturaren, eguneroko jardun berezituaren eta haur munduan jardunaldiak burutuko dira hilaren 22, 23 eta 24an Subijana Etxean. Izen-emateko epea hilaren 16ra luzatuko da 50 eurotan (EHBEko bazkideek eta ikasle eta langabetuek 35 euro).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarreta, 1.943.67.36.49.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

INFO
943 654 501
www.tolosaldeagaritzen.net
San Esteben 20
20400 TOLOSA

BERITZARREA ZABAR ARALAR ETZAZU
TOLOSALDEAN NEGOTZIO IDEIA BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEKO SUSTAPEN KANPAINA

AURKEZPEN EPEA:
-Ekimenen 1etik irailaren 30era edota aurrekontua agortu orle
-Enpresa martxan jartzeko epea 2010eko Abenduaren 31an amaitzen da

100€ NEGOTZIO IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA DEFENDITZEGATIK

TOLOSALDEAN ENPRESA EKIMENA MARTXAN JARTZEKO 500€